

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Abendua hilabete oso bero eta lehorra izan da

Nafarroa osoan prezipitazioak batezbestekoaren azpitik izan ziren eta tenperaturak ohikoak baino altuagoak

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 3

Pasa den adendua hilabete oso beroa eta oso lehorra izan zen Nafarroa osoan, prezipitazioak batezbestekoaren azpitik eta tenperaturak ohikoak baino altuagoak izan zirela eta. Hilabetero Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak prestatzen duen eguraldiari buruzko iruzkinan islatzen den bezala.

Zehazki, prezipitazioak Nafarroa osoan batezbesteko balioen azpitik agertu ziren, nahiz eta isurialde kantauriarakoak batezbestekoa hurbilenak izatea, adibidez Lesakako eguraldi-estazioko batezbestekoa % 80 ingurukoa izan zen. Lurralde honen beste lekuetan %50 eta %75 bitarteko aldeak gertatu ziren. Hala ere, Nafarroako Foru Erkidegoko beste lurraldetan %25 eta %50 artean bakarrik kokatu ziren. Datu hauek direla eta, hilabete oso lehorra izan dela esan daiteke, ipar isurialdean, lehorra izan denean, eta Nafarroako Erdialdeko eta Lizarrerriako estazio batzuetan izan ezik. Egun euritsuen kopurua ohiko batezbesteko balioen azpitik geratu da, eta gainera ez ziren egon intentsitate handiko euri askorik.

Temperaturei dagokionez, abendua oso epela izan dela esan daiteke, tenperaturaren batezbestekotik 0,8 eta 2,8 gradu arteko aldatetekin. Eguraldi-estazio askoetan batezbesteko balioak 2 gradu baino gehiagoan gainditu zituzten, gehienak Lizarrerrian eta Pirinioetan, Abaurregaina / Abaurrea Alta estazioan bezala, 2,8 graduko aldateta batekin. Ordea, Betelu eta Caparrosok izan ziren ohiko baloreetara gehiago hurbildu ziren estazioak.

Azkenean, gehienezko haize boladak Gorramendian (106 km/o, abenduaren 18an eta 99 km/o 7an), Iturgoiengo Trinitatean (100 km/o, abenduaren 13an) eta Aralarrean (96 km/o, abenduaren 13an).